

5. gidoia: Ahots guztiek balio dute

Gidoiaren deskribapena:

Gidoiak Naroa eta Ainara erakusten dizkigu ikasle batzuei eskolaz kanpoko jarduerari buruzko aholkuak ematen, haien interes eta gaitasunetara egokitzen diren jarduerak hautatzen laguntzeko asmoz. Hainbat interakzioen bidez, ikasleek kirol-jarduerak, jarduera artistikoak eta jarduera akademikoak aztertzen dituzte, estereotipoak hautsiz eta inklusioa sustatuz. Ikasle bakoitzak bere kezka adierazten ditu eta gomendio pertsonalizatuak jasotzen ditu, eta zenbait diziplinatan nabarmendu diren pertsonen adibide inspiratzaileak ematen dira ezagutzera. Eskola-jardueretan aukera-berdintasunak duen garrantziari buruzko hausnarketa eginez amaitzen da historia.

Helburu pedagogikoa:

Gidoi honen helburu pedagogikoa ikasleen artean inklusioa eta aukera-berdintasuna sustatzea da. Interakzioen bidez, beren interes pertsonalei jarraitzen erakusten zaie ikasleei, agerian geratzen delarik jarduera guztiak egokitu daitezkeela bakoitzaren gaitasunetara. Dibertsitate funtzionalaren garrantzia azpimarratzen da, eta arrakasta izan duten gizon-emakume batzuen adibideak ematen dira, ikasleak inspiratzeko. Gidoiak erabaki informatuak hartzea, desberdintasunak errespetatzea eta hezkuntza-ingurune inklusiboa sortzea sustatzen du, non ikasle guztiek izango duten ikasteko eta hazteko aukera.

Eszenen taula

Eszena	Deskribapena	Elkarrizketak
--------	--------------	---------------

E00	<p>Naroa eta Ainara ikastetxearen sarreran daude, izena eman nahi dutenei eskolaz kanpoko jarduerari buruzko aholkuak ematen.</p>	<p>Eloi: Kaixo! Zertan zabilzate?</p> <p>Ainara: Aurten, Naroa eta ni Eskolaz Kanpoko Jardueren Batzordean gaude.</p> <p>Naroa: Ikasleak jarduera-zerrendetan erregistratu behar ditugu, eta batzuek ez dakitenez izena zertan eman, aholkuak ematen dizkiegu.</p> <p>Eloi: Eta nola dakizue zein jarduera gomendatu?</p> <p>Ainara: Kontuan hartzen dugu zer esaten diguten, inor ez diskriminatzen saiatuz eta guztiek gustuko dituzten jardueretan izena emateko modua izan dezaten ahaleginduz.</p> <p>Eloi: Zergatik ez zarete nirekin hasten?</p> <p>Izenburua: Eman aholkuak eskola-jardueretan izena eman nahi duten ikasleei. Zein jarduera gomendatuko diogu?</p>
E01	<p>Naroa eta Ainara ikastetxearen sarreran daude, izena eman nahi dutenei eskolaz kanpoko jarduerari buruzko aholkuak ematen. Ikasleei beren interes eta trebetasunetan oinarritutako eskolaz kanpoko jarduerak aurkeztean, erabaki informatuak hartzea sustatu. Inklusioa eta aukera-berdintasuna sustatu.</p>	<p>Eloi: Zer gomendatzen didazue? Jardueraren batean izena eman nahi dut, baina ez daukat argi zeinetan. Filosofia eta historia gustatzen zaizkit. Lehia-kirolak ez zaizkit gehiegi gustatzen. Musika gustatzen zait, baina ez naiz eskuekin oso trebea.</p> <p>1. aukera: Irakurketa</p> <p>Erantzuna: Irakurketa jakin-mina, kontzentrazioa eta ulermena lantzen dituen jarduera bat da. Irakurtzeak, gainera, bestelako mundu eta perspektibak arakatzeko aukera</p>

ematen du, enpatia eta sormena sustatuz. Oso irisgarria da, eta bakarrik edo taldean aritu zaitezke irakurtzen.

2. aukera: Patinajea

Erantzuna: Patinajeak egoera kardiobaskularra hobetzen du eta giharrak indartzen ditu. Dibertigarria eta ekonomikoa da, eta bakoitza bere erritmoan ibil daiteke, lehiatzen ibili beharrik gabe. Gainera, oso inklusiboa da; batzuek gurpil-aulkian patinatzen dute eta asko gozatzen dute jarduera horrekin.

3. aukera: Musika

Erantzuna: Musikak oroimena eta pazientzia lantzen ditu. Sormenezko jarduera entretenigarria da, eta guztiontzako moduko musika-tresnak daude. Ez da nahitaezkoa hasieratik eskuekin trebea izatea; prozesu bat da musika-tresna bat jotzen ikastea, eta praktikarekin hobetu egiten da. Adierazteko eta besteekin konektatzeko modu bat ere izan daiteke musika.

Eloi: Irakurtzea izugarri gustatzen zait, baina musikarekin probatuko dut. Ziur aurkituko dudala niretzako moduko musika-tresnaren bat. Eskerrik asko!

Hurrengo ikaslearengana pasatzen gara

E02	<p>02 ikaslea, jarduera fisikoren bat taldean egin nahi duen neska. Ikasleei beren interes pertsonalei jarraitzearen garrantzia erakutsi, eta jarduera fisiko guztiak inklusiboak izan daitezkeela eta gaitasun desberdinetara egokitu daitezkeela azaldu, arrakasta izan duten gizon-emakumeen adibideak nabarmenduz.</p>	<p>02ikaslea: Kirol-jardueraren batean izena eman nahi nuke, baina ez dut neure burua oso seguru sentitzen. Ez dut gehiegi presionatuko nauten ezertan aritu nahi.</p> <p>1. aukera: Dantza</p> <p>Erantzuna: Dantzatzea ariketa egiteko eta dibertitzeko jarduera paregabea da. Dantza-estilo asko daude, eta gustura eta presiorik gabe sentiarazten zaituen bat hauta dezakezu. Entzun al duzu inoiz ezer Lizzy Howell-i buruz? Estereotipoak hautsi dituen eta dantza denek egin dezaketela erakutsi duen dantzari bat da.</p> <p>2. aukera: Eskubaloia</p> <p>Erantzuna: Eskubaloia osasungarria da fisikoki, eta ariketa taldean egiteko modu bikaina da. Gainera, talde-kirol bat da, lagun berriak egiteko eta lagunaz inguratua sentitzeko aukera ematen dizuna. Ba al zenekien forma eta tamaina guztietako pertsonak aritzen direla eskubaloian eta horretan nabarmentzen direla?</p> <p>3. aukera: Igeriketa</p> <p>Erantzuna: Igeriketa kirol oso eta irisgarri bat da. Bikaina da osasun kardiobaskularrerako, eta ez du giltzaduretan presiorik eragiten. Dibertitzeko aritu zaitezke igeriketan, lehiatu beharrik gabe, eta oso jarduera lasaigarria da.</p>
-----	--	---

		<p>02ikaslea: Eskubaloian emango dut izena; polita izango da kirola taldean egitea. Eskerrik asko aholkuengatik!</p> <p>Ainara: Ederki! Gogoan izan: gozatzea eta eroso sentitzea da garrantzitsuena. Guztiontzat da ariketa, eta garrantzitsuena zoriontsu egingo zaituen zerbait aurkitzea da. Uneren batean presiopean edo deseroso sentitzen bazara, etorri guregana edo hitz egin zure entrenatzaileekin. Zuri laguntzeko gaude hemen!</p> <p>Hurrengo ikaslearengana pasatzen gara</p>
E03	<p>03 ikaslea, jomuga artistikoak eta ezaugarri atletikoak dituen mutila. Ikasleak estereotipo atletikoetatik kanpoko interesak arakatzera motibatu, sormenaren eta indibidualtasunaren garrantzia azpimarratuz eta jarduera artistikoetan nabarmendu diren pertsonen adibideak eskainiz.</p>	<p>03ikaslea: Izena futboleant ematera presionatzen nau mundu guztiak, jokalaria bikaina naizelako, baina ez dakit benetan hori nahi dudana. Beste zein jarduera egin nitzake?</p> <p>1. aukera: Xakea</p> <p>Erantzuna: Xakeak logika, sormena eta pazientzia garatzen ditu. Oso irisgarria da eta bestelako interesak dauzkaten ikaskideekin sozializatzeko aukera ematen du. Gainera, autoestimua eta konfiantza izaten lagundu diezazuke. Ba al zenekien Magnus Carlsen, munduko txapelduna, xakea hezkuntzan txertatzearen defendatzaile sutsua dela?</p> <p>2. aukera: Gimnastika erritmikoa</p> <p>Erantzuna: Gimnastika erritmikoa aukera bikaina da talde-kirola ez den jarduera fisiko bat egin nahi baduzu. Oreka, malgutasuna eta koordinazioa lantzen ditu. Gainera,</p>

		<p>denentzako moduko kirol bat da; generoak ez du axola. Arlo horretan oztopoak hautsi zituen gimnasta bat Joaquín Blume izan zen.</p> <p>3. aukera: Pintura</p> <p>Erantzuna: Pintura sormena asko bultzatzen duen jarduera bat da, lasaigarria, zure osasun mentala hobetu dezakeena. Ez du trebetasun fisikorik eskatzen; irudimena baino ez da behar. Pinturan emozioak adierazteko eta zailtasunak gainditzeko modua aurkitu zuten artista batzuk, besteak beste, Van Gogh eta Frida Kahlo dira.</p> <p>03ikaslea: Pinturan emango dut izena. Marraztea asko gustatu zait beti, eta lasaitasun pixka bat emango didan zerbait egin nahi dut. Eskerrik asko!</p> <p>Narrea: Bikain! Garrantzitsuena zure interesei jarraitzea eta benetan gustura sentiaraziko zaituen zerbait egitea da. Ez utzi besteei zu presionatzen. Nabarmentzeko eta errerealizatua sentitzeko modu bat ere bada sormena.</p>
E04	<p>04 ikaslea, gorpil-aulkian dabilen neska. Kirol- eta arte-jardueretan, dibertsitate funtzionala duten ikasleen inklusioa sustatu, oztopoak gainditu dituzten kirolarien eta artisten adibide inspiratzaileak erakutsiz.</p>	<p>04ikaslea: Zerbaitetan eman nahi dut izena, baina, orain arte, jarduera artistikoak edo mugikortasunik behar ez dutenak bakarrik gomendatu dizkidate. Pixka bat nazkatuta nago.</p> <p>1. aukera: Igeriketa egokitua</p>

Erantzuna: Igeriketa egokitua oso kirol osasungarria da, eta erabat irisgarria. Estilo-aniztasun handia dago, eta, lehiatu nahi izanez gero, txapelketa ugari daude. Ezagutzen al duzu Teresa Perales? 20 domina baino gehiago irabazi dituen igerilari paralinpiko bat da; askorentzat, inspirazio-iturri handia.

2. aukera: Eskrima egokitua

Erantzuna: Gurpil-aulkiko eskrima duela 100 urte baino gehiagotik egiten da. Eskrimarekiko duen ezberdintasun bakarra da parte-hartzaileak distantzia finko batera egoten direla. Oso egokia da autokontrola lantzeko eta estrategiak garatzeko. Beatrice Vio, txapeldun paralinpikoa, kirol hau hunkigarri eta desafiatzaileria izan daitekeela erakusten duen adibide bikain bat da.

3. aukera: Antzerkia

Erantzuna: Antzerkiak zure adierazkortasuna eta sormena garatzeko aukera emango dizu, mugikortasuna gorabehera. Badira gurpil-aulkian daudenentzako bakarrik diren antzezlanak. Alde horretatik, nabarmentzekoa da Back to Back Theatre antzerki-konpainia, hainbat sari irabazi dituena eta bere ikuspegi inklusiboagatik ezaguna dena.

04ikaslea: Igeriketan emango dut izena. Neure kabuz zer egiteko gai naizen ikusi nahi dut eta hesi guztiak gainditu nahi ditut. Mila esker bioi!

		<p>Naroa: Bikain! Igeriketa aukera bikaina da, eta zure indarguneak ezagutzeko aukera emango dizu. Gogoan izan garrantzitsuena gustatzen zaizun zerbait aurkitzea eta prozesuaz gozatzea dela. Zuri laguntzeko gaude hemen!</p>
E05	<p>05 ikaslea, besoan dibertsitate funtzionala duen mutila. Estereotipoei desafio egin eta dibertsitate funtzionala duten pertsonak kirolean nabarmendu daitezkeela erakutsi, autoestimua eta kirol-partaidetzan norberak egindako aukerak duten garrantzia nabarmenduz.</p>	<p>[05ikaslea] Kirolen bat egin nahiko nuke, baina jendeak esaten dit besoan mugaketa bat daukadanez ezin dudala. Zer egin dezaket?</p> <p>[1. aukera] Saskibaloia</p> <p>[Erantzuna] Saskibaloia oso kirol inklusiboa da, eta gaitasun desberdinak dauzkaten atleta asko aritzen dira kirol horretan. Ezagutzen al duzu Hansel Emmanuel? Besoan mugaketa bat duen mutil bat da, saskibaloian egundoko izarra. Erakutsi du dedikazioarekin eta grinarekin ezer ez dela ezinezkoa.</p> <p>[2. aukera] Mahai-tenisa</p> <p>[Erantzuna] Mahai-tenisean esku bakar batekin aritu daiteke eta oso kirol osoa da. Ikusi Bruna Alexandre: Brasilgo selekzioeko jokalaria bat da, arrakasta handiak lortu dituena. Kirol guztiz irisgarri eta desafiatailea da.</p> <p>[3. aukera] Arte martzialak</p> <p>[Erantzuna] Arte martzialak ere inklusiboak izan daitezke, eta era guztietako gaitasunak dituzten pertsonak egiten duten kirola da. Niko Wirachman arte martzial mistoak egiten dituen kirolari bat da, oztopo asko gainditu dituena eta askorentzako inspirazio-iturria dena.</p> <p>[05ikaslea] Ez nekien hainbeste kirol hain inklusiboak izan zitezkeenik! Mahai-tenisean emango dut izena; beti gustatu izan zait. Eskerrik asko urratsa egiten laguntzeagatik!</p>

		<p>[Ainara] Zoragarri! Mahai-tenisa aukera bikaina da, eta zure indarguneak ezagutzeko aukera emango dizu. Gogoan izan garrantzitsuena gustatzen zaizun zerbait aurkitzea eta prozesuaz gozatzea dela. Zuri laguntzeko gaude hemen!</p>
E06	<p>Ainararen eta Naroaren azken gogoeta. Zerrenda ikastetxearen webgunean ikusten da.</p>	<p>[Ainara (OFF)] Eskolaz kanpoko jardueretan izena emandako ikasleen zerrendak webgunera igo ditugu. Aurten, inoiz baino ikasle gehiagok erabaki dute parte hartzea.</p> <p>[NAROA (OFF)] Bakoitzak gehien gustatzen zaizkion jarduerak hautatzeko aukera izan du. Ederra da hesiak nola hautsi ditugun eta guztiok ikasteko eta hazteko aukera berak dauzkagun ingurune bat nola sortu dugun ikustea.</p>